



ostiko bidaiari

BALOREZKO PROPOSAMENA

Hainbat ideia izan ditugu, baina azkenean, hotel sare tematiko bat egitera ausartu gara. Gure hotelak, munduko hainbat tokietan oinarrituta daude eta beste hotelak ez bezala, kultura berriak ezagutzeko eta egoera ekonomiko txar batekin joateko aukera ematen dute. Proiektu honekin hainbat arazo eta behar konpontzen ditugu; Lehenik eta behin arazo ekonomiko kaxkarrak dituzten gazteen bidaiatzeko beharra asetzen ahalegintzen gara, izan ere, kostu ekonomiko txikia dute hotelek. Beste alde batetik, gazteen aisialdia bermatzen du eta Euskal Herriko beste gazteak ezagutzeko aukera ematen du. Gainera, Euskal Herrian kokatuta daudenez, gertutasuna eta seguritatea ematen dute eta garraioa beraz, ez da oso garestia izango. Aldi berean, hoteleko lurraldea ezagutzeaz gain, gure lurraldeko tokiak esploratzeko eta ezagutzeko aukera ere ematen dute eta aukera paregabea da lurraldea ongi ezagutzeko. Laburbilduz, esan dezakegu, gure nahia orokorrean urrutiko herrialde batean sentitzea da beti ere gastu ekonomiko handirik izan gabe eta zure lurraldetik atera gabe.

Gure hotelera etorriko diren bezeroek diru kantitate handia aurrezteko aukera edukiko dute aldi berean, beraientzat zehazki antolatutako ekintzetan parte hartzeko aukera edukiz. Gure helburua betetzeko hotelek balio hauek dituzte:

Alde batetik, **nobedadea** dugu, gure lurraldean ez baitaude eginkizun eta helburu horiek dituzten proiektuak. Euskal Herrian ez daude hotel tematikoak eta hori aukera handia izan daiteke beste lurraldeak ezagutzeko dirurik gastatu gabe. Gainera, aipatu dugun bezala, gure hotelak gazteei zuzenduta daude eta zoritxarrez, gure gizartean ez daude gazteentzako aisialdi proposamenak eta ekintzak proposatzen dituzten proiektuak, beraz, aukera paregabea izan daiteke gazteontzat batez ere.

Bestetik, gure hotel-sarea gazteontzat proposatutako proiektua denez, **prezio** nahiko eskuragarriak edukiko ditugu, honela, gazteez gain, diru asko ez duten familia eta bikoteak erakarri ditzazkegu.



ostiko bidaiari

Gainera, muxu-truk kantzelatzeko aukera eskainiko dugunez, **arrisku** ugari **murritzten** ditugu eta jendeak lasai egin dezake erreserba bat nahiz eta ez jakin seguru joango diren ala ez. Horrela, azken momentuan plan berri bat ateratzen bazaie (gazteon egunerokoan ohikoa dena) ez da arazorik egongo erreserba kantzelatzeko eta ez joateko.

Gure enpresak duen beste balio bat **eskuragarritasuna** da, izan ere, Euskal Herrian kokatutak gaude eta enpresa Euskal Herriko jendearentzat bideratuta dago. Edozein arazo edukita, kotxea edo autobus bat goizean hartu eta eguerdirako hotelean bueltan egon daitezke gure ostalariak. Garraioarekin jarraituz, bidaia motzak eta merkeak izateaz gain, argi dago Euskal Herriko garraio publikoa ezinhobea dela.

Laburbilduz, aurreko guztia kontuan hartuta, esan dezakegu gure proiektuak hainbat ezaugarri positibo dituela gizartean txertatzeko eta gizarterako oso baliagarria izan daitekeela uste dugu. Behin baina gehiagotan aipatu bezala, gazteon artean bereziki.